

BASKEPENSIONES 30 GAPI

INBERTSIO POLITIKA

Errenta aldakor nazional eta nazioartekoa neurrian erabilia, gehienez % 30, epe ertain eta luzean errentagarritasun erakargarriak lortu nahi dituzten pertsonentzat.

2020/08/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa**	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
%1,00	%3,44	%-0,68	%0,73	%0,88	%0,96	%2,41

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
%-0,68	%7,93	%-5,65	%3,06	%1,19	%-0,75	%4,96

*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

2020/08/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%7,30
Lurrunkortasun 3 urte**	%5,04

**Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoaren antzintasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.

HILEKO IRUZKINA

Ekonomia garatu nagusietan bizi dugun kutsatzeen gorakadak, Europan bereziki, Espainia buruan, tokiko komunikabideen goiburua bete baditu ere, inbertitzaileen sentimenduak hoberrantzen jarraitu du abuztuan. Hobekuntza horren katalizatzaileak makro datuen hobekuntza, Banku Zentralen eta Gobernuen laguntzak eta COVID-19ari aurre egiteko txertoen inguruko albiste onak izan dira. Nahiz eta pandemiaren bilakaera kezkarria izaten jarraitzen duen, azken asteotan, sendatutako pertsonen plasma gaixo berriak tratatzeko erabiltzea onartu dela jakin dugu, baita AstraZeneca eta Pfizer txertoetan aurrera pausoak ematen ari direla ere. Arlo makroekonomikoan, nahiz eta Estatu Batuetan kontsumitzaileen konfiantza galeraren ondorioz orain arteko berpizte ekonomiko sendoa

moteltzen doala badirudi ere, AEBko BPGn-ren goranzko berrikustek, AEBko enplegu datuen hobekuntzak eta Eurozonaren egonkortasunak baikor izatera bultzatzen zuten. Gainera, FEDak bere estrategian emandako noranzko aldaketa gehitu behar zaio. 41 urteren ondoren, moneta agintariak malgutasuna eman diote % 2ko inflazio xedeari, enpleguari lehenasuna emanez eta ateak ireki mantenduz interes tipoak denbora luzeagoz baxu mantentzeko. Zerga arloan, aldiz, suspergarri berri hori ez da guztiz gauzatu. Amerikar gobernuaren negoziazioak hilean zehar eten ziren, nahiz eta zenbatekoaren beharpen batek hurrengo asteetan demokraten eta errepublikanoen arteko adostasuna ekar dezakeela uste den. Europan, Europako Batzordeak 81.400 M lagako

dizkie hamabost estatu kideri, oso baldintza onekin, haien gobernuak zehaztutako enplegua aldi batez babesteko eskema finantzatzeko. Azkenik, merkataritza arloan, AEBko eta Txinako merkataritzaren ordezkariek positibotzat ematen zituzten urtarrian sinatutako merkataritza akordioaren 1 fasea barneratzeko emandako pausoak. Gainera, konpromisoa hartu baitzuten harremanak sendotzeko lanean jarraitzeko. Horrekin guztiarekin, errenta aldakorrek merkatuek emaitza positiboekin agurtu dute abuztua, Estatu Batuetako burtsek gehienbat. Nasdaq selektibo teknologikoa buruan, % 11,05eko igoerarekin, eta gainerako indizeak % 7tik gora igo direla (Dow Jones +% 7,57 eta S&P +% 7,01), Amerikako burtsak 80ko hamarkadatik izan duen abuzturik onena bizi izan du, teknologikoen joera onaren


ondorioz. Europan, joera ez da horren deigarria izan, halere positiboa izan da. Eurostoxxa (+% 3,09) Ibexa (+% 1,34) baino hobeto ibili da, eta Dax alemaniarra nabarmenena da (+% 5,13). Europatik kanpo, japoniar burtsak % 6,59ko igoera du. Emergenteen multzoak, aldiz, % 2,09 egin du aurrera. Erreserba Federalaren moneta politika aldaketak Atlantikoaren bi aldeetako epe luzearen bonuen errentagarritasunean igoera nabarmena eragin du. AEBtan, hamar urterako bonuaren errentagarritasuna 18bp hazi da, % 0,70era arte, eta haren homologoa alemaniarra aldiz, 13pb, -% 0,40rekin bukatu arte. 10 urterako Espainiako bonuak bide berbera jarraitu du, nahiz eta neurri txikiagoan, eta % 0,41an bukatu zuen, 7pb igo ondoren. Horren ondorioz, arrisku prima 6pb estutu da.

EZAUGARRI OROKORRAK


Ondarea:	1.694.913.167,39
Komisioak guztira:	%1,60
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenboltso Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Ertaina
Inbertsiorako gutxieneko epea:	-



Zorroaren banaketa



Errenta aldakorrek zorroaren banaketa geografikoa



BASKEPENSIONES 30 GAPI

BASKEPENSIONESEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkia askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- Konfiantza Kutxabanken. Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- Onurak Kutxabankeko beste produktu batzuetan (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez, **PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitzke.**

BASKEPENSIONES 38 PLANAK HONAKO ONURAK DITU:

KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA, inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA**, dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

ARRISKUAREN KONTROLA. Aktiboen analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

EGUNEROKO JARRAIPENA

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).

**ZEURE
B
PLANA
BASKE
PENSIO
NES**
BANAKAKO BGAEa
Kutxabank SA
Bazkide sustatzailea.
Kutxabank Gestión
IKESK SAU Ondare
Kudeatzailea.



PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA.

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

**Hasi etorkizuna planifikatzen,
Baskepensioneseekin:
[SIMULAGAILUA](#)**